

Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko irailaren 17a IV.urtea

Usurbil, 73. Zenbakia



**Ramon Brit:
40 urte eta gero**



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Miren!** San Esteban egunean zure urtebetetze eguna izan zen. Zenbat izan dira? Berdin da, dena dela ondo ospatu genuen. Zorionak berriz eta muxu haundi bat Josu, Merte, Beñat eta Haritzen partez.



Urteaskoan **Beñat!** Santio egunean 6 urte bete zenituen. Zein ondo pasa genuen denok elkarrekin! Zorionak berriz eta muxu haundi bat etxekoekin partez.



Enetz Errazkin Urkiola. Abuztuaren 29an sei urte bete zenituen zorionak aita, ama eta familiaren partetik.



Aginagako bi neska motzei zorionak! Atzeratuta baina hurre baliu duelakoan. Saiatu gaiztakeriatan!

Norbait zoriandu nahi baduzu hemen duzu aukera. Lortu argazkiak eta ekarri Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara nahi duzun testuarekin.

Datorren alea: Urriaren 1ean
Datuak eta argazkia emateko epea: irailaren 25a

Jaiotzak

Andoni Zubeldia
Urkola
(1999-07-21)
Kalezar

Gaizka Sagarazazu
Ibargoien
(1999-07-23)
Atxegalde

Aitor Delgado
Arteixe
(1999-07-25)
Eguzkitza

Alex De Miguel
Rikondo
(1999-07-31)
Kalezar

Estitxu Berasategi
Eizagirre
(1999-08-07)
Kalezar

Irati Gabellanes
Taberna
(1999-08-18)
Santuenoa

Josu Lizaso
Kortajarena
(1999-08-19)
Kalezar

Hildakoak

1999-07-27
Jose Rezola
Aristizabal
89 urte
Aginaga

1999-07-27
Teresa Gainza
Ugalde
81 urte
Kalezar

1999-06-28
Maria Huegun
Murua
84 urte
Aginaga

1999-08-31
Inazio Urdanpilleta
Ariztimuño
77 urte
Zubieta

1999-09-04
Asentxio Arruti
Mendikute
73 urte
Aginaga

1999-09-06
Kandida Torregarai
Furundarena
80 urte
Kaleberri

1999-09-07
Juan Elorza
Landa
92 urte
Kaleberri

1999-09-11
Sebastian Martija
Zubiria
81 urte
Kaleberri

Zuetako asko eta asko konturatuko zineten bezala opor luxetxoak izan ditu aurten Noaua! aldizkariak. Irailaren 3an zuen etxeetara itzuliko zela jakinarazten genizuen azken alean, baina irailaren 17an eskuratu duzue opor ondorengo lehenengo alea.

Irailaren 3ko alea ia prest genuenean ordenadoreak kale egin zigun. Berriz ere oporrak hartu asmoz edo, ez aurrera eta ez atzera gelditu zitzaigun ordenadorea barruan 73.alea zuela. Birus baten ondorioz ale guztia galdu genuen. Hau ikusita, eta berriz ere ordenadorea konpondu eta alea berriz egiteko berandu zela ikusita irailaren 3ko alea ez genuen atera. Eskuetan duzun hau da beraz irailko lehen alea. Irakurleok barkatuko diguzuelakoan...

Noaua! aldizkariako erredakzio kontseilua

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com
Web orria:
http://www.jalgi.com/topagunea/noaua/

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Saioa Erro

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalaoa Arnaiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Kar-mele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Azpiroz, Jokin Zubiaur eta Arantxa Irazustabarrena.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia Mujika, Agurtzane Solaberrieta, Saioa Erro eta Inaxio Usarralde.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko udarako ordutegia: 11.00-13.00 astegunetan

Azala:

Ramon Brit trikitilaria



2.000. efektua dela eta...

Josu Aranberri

2.000 urtea gainean dugu. Behin udara pasa ondoren, konturatu gabe turroia jaten egongo gara, eta noski, hainbeste aldiz entzun dugun 2.000 urtearen atarian.

2.000, 2.000, 2.000... 2.000. efektua ote? 2.000 aldiz entzun dugu ja zenbaki borobil hori. Hala ere lasai, 2.000 efektua dela eta ikararik izateko arrazoirik ez dagoela esan du Eusko Jaurkaritzak eta. Horrenbesteko beldurra sartu ondoren, adituak egiten ari diren lanari esker efektu honek ekarriko dituen kalteak "txiki xamarak" izango omen dira.

Ordenagailu pertsonaletan blokeo arriskua eta datu artxi-boen galera, kode digital, parkinetako sarrera eta eraikineta-ko sarrera txarteletan atasko arriskua eta funtzionamendu arazoak, igogailuetan funtzionamendu arazoak, errepide eta trenbideetako seinalizazioa... kontuan hartzeko gauzak izango dira 2.000. urtean sartzen garen egunean.

2.000. efektua datorrela eta beldurrez bagaude, zer gertatuko da.zerbait larriagoa gertatzen denean? 2.000. urtearen etorrerarekin sortu zitezkeen


arazoak lehen kontutan hartu ez bazituzten, zer gerta daiteke etorkizunean?

Izan ere aurrerapena gelditu ezinako laisterketa mugagabea bilakatu da. Ordenadorea edozein etxetan, kotxeetan ere bai, erosketak ordenadore bidez egiteko aukera.... Etorkizun digitala iragartzen dutenez, aurrerantzean gure bizitzan ezinbesteko izango diren "makinak" ezin ahaztu. "Muy interesante" bezalako aldizkariak ikusi besterik ez dago. Gu ere errobot bihurtuko gara martxa honetan.

Azken finean gaur egun ere "makina" hauen menpe gaude neurri handi batean. Guk **Noaua!** egiteko ordenadorea erabiltzen dugu. "Makina" bat buruhauste izaten dugu, eta azken aldi beldurra hezurretaraino sartuta egon ohi naiz. Irailaren 3ko alea adibidez gose zen birus batek jan zigun. Interneten bidez bidaiatu edo korreo elektronikoa jasotzeko beharrezkoa den modem-a tximistek erre ziguten. Zer izango ote da hurrengo? 2.000 efektua? 9/9/99 delakoa behintzat kalterik izan gabe pasa genuen. Arriskutik kanpo al gaude orain?



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herria'



Araetan diskotekarik ez

Noaia! aldizkariko 72. alean Kalejiraneko Zubietako kronikan jartzen zue-nari erantzuna eman nahi genioke Araeta jatetxeko bazkideek.

Lehenik eta behin Araetan azken aldi honetan eman diren aldaketen berri eman nahi genuke. Izan ere, azken hilabeetan lehen zeuden nagusiek alde egin dute eta bazkide berrien eskuetan dago orain Zubietako jatetxe eta sagardotegia.

Xabier Arregik seguruenik ez zuen aldaketa honen berri izango. Berak, Araetako nagusiek Donostiako udalari


Araetan diskoteka bat jartzeko eskaera egin diotela esaten zuen eta hori ez da egia. Egia da bai, aurreko nagusiek aukera hori ikusi eta eskaera Donostiako udalean aurkeztu zutela, baina Xabierrek dioen moduan atzera bota zuten proposamen hura.

Bazkide berriek, ordea, ez dugu diskoteka jartzeko asmorik, hori argi eta garbi gelditu dadila. Guretzat kontu zaharra zen diskotekarena, aurreko nagusiek egin nahi izan zuten zerbait, baina guk argi utzi nahi dugu ez dugula hori aurrera ateratzeko inolako asmorik.

Beraz, zubietarrak eta beste guztiak lasai egon daitezke. Zubietan, guk behintzat, ez dugu diskoteka jartzeko asmorik. Lehengo nagusiei ezezkioa eman zitzaien, eta bazkide berriek ez dugu kontu hau ukitu ere egin. Argi gelditu dadila hori.

Araeta jatetxeko bazkideak

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarfe hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez **Noaia!** beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak **Noaia!** bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.



Kalezarko parkea da bai, eta ez oso txukuna gainera. Haurrak jolasteko toki ego-
kia izan behar eta zikin-
eriaz beteta egoten da.
Umeentzat arrisku handie-
gia ezta? Garbitzaileek goi-
zero garbitzen omen dute,
baina arratsalderako zikin-
duta egoten omen da.
Zabor ontzien falta ote?


PORTULARRUME



**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**



Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Berriketan



Divina Lanberri Elizondo

Oriotarra bada ere, duela 23 urte ireki zuen arraindegia Atxegalden. Etorri zenean Atxegalde auzo gaztea zen, dena zen berria. Urte hauetan auzoa eta auzotarrak nola hazi diren ikusi du Divinak.



Asko aldatu al da Atxegalde urte hauetan?

lkaragarri. Lehen denak gazteak ziren. Etorri nintzenezan Atxegalden dena berria zen, dena jende gaztea eta umeak. Jaiotzen ikusi ditut, gero ume kotxeetan, eskolara joaten zirenean, hementxe, arraindegi parean hartzen zuten autobusa, eta hemen bueltaka ibiltzen zirenak orain "señorita" eta gizontxoak eginak daude.

Nolakoa da zure egun normal bat?

Goizean 4.30etan jeiki, 5.00etan Oriotik atera eta Pasaia joaten naiz lanegunetan. Pasaian arraina hartu eta zerbait gosaltzen dut. Zain egoten naiz arrainak jasotzeko, eta badaezpada bajurak etorri arte itxaroten dut. Gustoko arraina erosi ondoren hona etortzen naiz. Goizean hemen arraina saldu eta etxera joatean etxeko lanak egiten ditut. Egun guztian gel-ditu ere egin gabe ibiltzen naiz.

Zure familian arrantzale tradizioa al dago?

Bai, denek arrain inguruan lan egiten dute. Aita, anaia eta semea arrantzaleak dira, eta alabak Donostiako arraindegi batean lan egiten du.

Jende asko edo gutxi ibili da uda honetan auzoan?

Inoiz baino gutxiago. Inor ez da ibili eta! denak kanpoan ibili dira. Ederki nazkatu naiz aurtengo honetan.

Zuk oporrik izan al duzu?

Nik orain arte inoiz ez dut oporrik izan. Aurten bai, Iraila bukaeran Xakobeora joango gara

lagun batzuk zortzi egun pasatzera. Aspaldiko partez orain izango ditut oporrak.

Kanpotarrik ibili al da?

Hemen ez da inor ibiltzen. Hau ez da Orio edo Zarautz bezalako herria. Hona inor etorri ez, eta denak kanpora joaten dira.

Normalean zein etortzen da arraina erostera?

la beti etxekoandrea .

Atxegalden arrain asko jaten al da?

Bai dexente. Batzuk haragizaleak dira besteak arrainzaleak. Denetik dago.

Arraina erosteaz gain kontu kontari aritzera etortzen denik ere egongo da...

Ez, gutxi gelditzen dira. Arraina prestatu bitartean hemen egoten dira eta gero segituan joaten dira.

Hala ere, Atxegaldekoa izan ez arren auzoko kontuen berri jakingo duzu?

Ez pentsa. Nik herriko jendea aurpegiz bakarrik ezagutzen dut .

Beraz, arraindegian ez dago sardinerarik.

Ez, lehenago hala izaten zen, baina orain ez.

Noiz arte jarraitu behar duzu hemen. zein asmo dituzu?

Hori oraindik ez dut pentsatu. Datorrena betor.

Amagoia Mujika

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**

IOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa 37 19 54

**INDUSTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**

Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil tlf 943 36 14 87 oiartzun

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behe,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

TXOKOALDE

Frontoia oraindik argirik gabe

Imanol Goenaga



Lehenik eta behin gauza bat argitu nahi nuke. Txoko honetako kronikak nire izenean azaltzen badira ere, Akerra gaztetxeok idazten ditugu elkarlanean. Akerra gaztetxearen izenean ezin zuela kronikak azaldu eta izen bat jarri behar zela eta niri tokatu. Baina guztion lana da eta, beraz, ondo esanak edo gaizki esanak guztiok esanak dira.

Behin hau argituta...abuztuko oporraldiak pasa eta gero berriz ere lanean jartzera goaz, eta, aukera hau aprobeztatuz gure auzoko gora beherak kontatu nahi genituzke.

Oraindik frontoian ezarritako argiztapen sistema berria dastatzeko geneukanean, "iluminatu-



ren" batengatik gabe geratu gara.

Zer gertatu zen? Ba oso sinplea. Kaxak ez omen zuen behar adinako sendotasuna eta, berau behartu ondoren, ordulari lanak egiten zituen automata ohostu zuten.

Honi esker orain inortxok ere ezin du gauzez bertan jolastu. Ondorioz, udako gau epeletako pala partiduak bertan behera gelditu dira. Gainera frontoia libre izateko ordurik onena da gau partekoa, egun guztian herriko zein kanpoko jendea ibiltzen baita gelditu ere egin gabe. Egindako balentriarekin gustora geratuko zen norbait. Ziur bere etxean ez duela horrelakorik egingo.

KALEBERRI

Denbora

Eneko Harreguy



Usurbilgo elizaren hormako ordulariak zazpi t'erdia jo aurretik jarri naiz orri zuriaren aurrean idatzi asmoz. Gauza eta ideia franko pasa zaizkit burutik. Batzuk, egoki ez zirelakoan, baztertu egin ditut, besterik gabe; beste batzuk berriz, ohar moduan orria estreinatu dute. Ideien zerrenda begi aurrean harturik, eta zein aukeratu pentsatzen nengoela zortzira direla adierazten duten ezki-la hotsak entzun ditut. Berehala jabetu naiz, labur esanda, pare bat ideia pentsatu orduko ordu erdi pasatxo joan dela! Denboraren gurpilari bueltak ematen hasi naiz orduan:

Hain garrantzitsua al da, bada, denbora? Badirudi, baietz. Denbora, galdu egin daiteke; denbora, irabazi egin daiteke; denbora, pasa egin daiteke; denbora, egin ere egin omen daiteke!

Denbora, beste zenbait gauza bezala, sotifikatu egin dugu. Ez zitzaigun aski denbora urte, hilabete, egun, ordu eta minututan zatitzea. Mendebalderago edo ekialderago joan, ordu ezberdinetan bizi gara: Norbaitek urtezaharra Usurbilen ospa dezake, eta hurrengo egunean itsasoa zeharkatuz, Argentinan, berriz.

Denbora. Ez al zaizue iruditzen

zein zorientsuak diren denbora, egunak, loalditan neurtzen dituzten umeak?

- Zenbat lo falta dira nire zorientarako? -galdetuko du haurrak.

- Bi maitia -erantzungo du amak. -Eta zein numerotan? - berriz ere.

- Hamabostean seme.

Denborak ontzen du ardoa; denborak osatzen ditu zauriak; denbora...urrea da. Denbora luze egiten zaigu atsegin ez dugun egoera baten aurrean. Denbora labur joaten zaigu gustora gaudenean. Denbora,denbora...denbora!

KALEZAR

San Roke eguna

Hau da nahigabea, opor-
rrak bukatu zaizkigula
Usurbildar gehientsuenei . San
Inaziotan hartu genituenean,
hilabete luzea genuela esaten
genuen, baina, ohartzerako
bueltan lanean gaude.

Hilabetea ez da alperrik joan
ordea. Zubietan Santio jaiak
ospatu ziren, Urdaigagan San
Estebanak eta kalezartarrok,
berriz, San Roke eguna.


Abuztuak 16 San Roke
eguna. Goizeko 11etan meza
ermitan, auzotar eta herritar
asko hurbildu zirelarik bertara.
Meza ondoren ohitura zaharrei
jarraituz, San Roke, lau pertso-
nen artean hartu eta prozesioa

egin zen auzoko plazatik barre-
na. Bueltan, monjen konbentu-
ra sartu ziren eta han zeuden
denak zain. San Rokeri bixita
egin ondoren, kanpai hotsez
ermitara itzuli ziren ospakizunari
amaiera emanez.

Lehen urte asko ez direla, eliz-
kizunaz gain, pare bat edo hiru
egunetako festa izaten zen,
orain, ordea, ez. San Juan fes-
tak ere ospatzen ditugu baina
herrian dirua ematen digun
udaletxea bakarra da ordea.

Bueno, ajeak aje, lana osasu-
na omen da eta oporrek egite-
ko zaudetenak oraindik, ondo
pasa, lanean ari garenon par-
tetik.

Joseba Pellejero



ATXEGALDE

Euskara maitatuz

Urtaro ederra da uda. Hara
eta hona bueltaka ibiltzen
gara eta beti badugu zer kon-
tutua Txiribogako petrilean
elkartzen garenean arratsalde
bero horiek preskatu nahian.

Buelbaka ibiltze hortan nik
badut huts egin ezineko zita
bat. Ez, ez pentsatu udako
"lige" bat denik, bestelako
"maitasun istorio" bat da. Izan
ere, uztaila aldean Donostiako
haur batzuk hartu eta mendi
tontorren batera eramaten
ditugu. Bertan, "ñoñostiko"
zinema, zentro komertzial eta
dixosozko gameboy edo dela-
koetatik urrun euskara maita-
tzen erakusten diegu, edo,
behintzat, hortan jarduten

gara. Batzuk euskara maitatze-
az gain beste mota bateko
sentimenduak ere izaten dituz-
te lehendabizikoz. Lehenengo
esaldi egokiak euskaraz eta
lehenengo muxuak, ba al da
konbinazio hoberik?

Aurten haur berezi xamarra
ezagutzeko parada izan dut.
Xabik gaitasun bereziak ditu,
gainontzekoak ez ditugunak:
Oso oso azkarra da. Berarekin
hizketan hasi eta konturatze-
ko erantzunik gabeko galdera
korapilatsuak hasten ziren.

-Amagoia, nire aitona esaten
du euskara "lengua malso-
nantea" dela bokal asko ditue-
lako. Adibidez, ikusi "iaioa"
hitza.- Halaxe esan zidan behin

Amagoia Mujika



bere euskara ezin hobean. Izan
ere, ez zen "iaioa" soilik
matematikan, euskaraz ere
ederki aritzen zen.

A ze lanak! Nola esplikatuz
genio txki harri hainbeste mires-
ten zuen "superaitonak" ez
zekiela ezer euskarari buruz eta
bere iritzia halakoa zela "Los
Madrilesen" bizi zelako ?

Ahalik eta modu xamurrene-
an egin nuen eta barkamena
eskatu zidan nire ama hizkun-
tza zena modu horretara defi-
nitzeagatik. Muxu bat eman
nahi izan nion baina ez du kon-
taktu fisikoa atsegin. Badakizue
genioen gauzak. Hala ere
orain euskara gehixeago maite
du.

SANTUENEA

Festak izango al dira?

Lehen, egun hauetan auzo-
lan festa giroa usaitzen zen,
baina dirudienez aurten
Santueneako jaiak ez ditugu
izango. Oraindik gauza segu-
ria ez da baina zurrumuruak
zabaltzen hasi dira. Eta zurru-
muruak hasten direnean esae-
ra zaharrak esaten duen beza-
la, "cuando el rio suena, agua
lleva".

Pena bat izango litzateke
Santueneako jaiak ez ospa-
tzea. Santueneako jendearen-
tzat egun bereziak izaten dira,
auzoan giro ezin hobea izaten
da eta auzotar guztiak biltzeko
aukera ezin hobea dira auzoko
festak. Auzoko dendan asko

biltzen garen arren oso desber-
dina da pertsona ogia erostera
joaten denean eta parrandara
joaten denean. Hala ere orain-
dik ez da esperantza galdu
behar. Badakigu, Santuenean
azkenengo momentue-
tan edozer gauza egi-
ten dutela eta horrega-
tik ez nuke esango
Santuenean festak
egongo ez direnik.

Bestalde eta gaia
aldatuz, Santuenea
baserria bota egin dute.
Esaten dutenez parke
bat egiteko asmotan
daude. Beste batzuk,
aldiz, frontoi bat egin

behar dutela esaten dute.

Frontoia edo parkea ederki
etorriko zaigu, beraz, itxaron
egin behar zer egingo duten
jakiteko, eta gero hitz egin.

Alfonso Vidal



URDAIAGA

Festen balorazioa

Nahiz eta amaitu zirenetik
hiruzpalau aste igaro
diren, auzo honetan gertatuta-
koaren garrantzi haundiena
auzo honetako zaindari den
San Estebanen jaiari dagokie.

Urtero legeaz abuztuaren 3an
ospatu zen santu honen



eguna, hala ere festei bezpe-
ran eman zitzaien hasiera
Trakets taldearen dantzaldia-
kin. Egunez jende dexente
bildu zen kaxko honetara,
nahiz eta gauean jende gehie-
girik ibili ez. Laitoz taldeak eskei-
nitako dantzaldian.

Hurrengo egunean,
berriz, oilasko biltzaile-
ak izan ziren. Horrela
astebukaera iritsi zen.
Bai ostiral eta bai larun-
bat gauean jende
dexente hurbildu zen
gora antolatzaileek
jarritako programaz
gozatzeko asmoz.
Larunbatean egun

guztian zehar plater tiraketaz
gain beste zenbait ekintza
burutu ziren, nahiz eta egural-
diak, arratsalde partean,
behintzat, gehiegi lagundu ez.

Igandean, azken egunean,
goizean meza ondoren
Saralegi anai-arreben erakus-
taldia izan genuen eta arratsal-
dean bertsolariak. Bertsolariak
eta gero erromeri giro polita
izan zen Tapia eta Leturiarekin.
Plazara hurbildu ziren guztiak
dantza batean jarri zituzten eta
afal ostean berriro ekin zioten
erromeriarri. Giro ederra bene-
tan Tapia eta Leturiak egural-
diaren laguntzarekin jarri zute-
na.

Joseba Zubeldia



AGINAGA

San Praixkuak ate joka

Iratxe Begiristain



Uda ja azken txanpan sar-tzera dihoa. Batzuk kan-pora, besteak herrian, hondar-tzan, festetan,...bakoitzak ahal edo nahi izan duena egiten ibi-liak gara. Beste batzuentzat, aldiz, irailean datoz urteko opo-rraldiak. Baina ikasle garenon-tzat...beno, San Praixkuak datozela eta animatuz, kontso-latuko gara.

Ez dira gogo txarrez hartzen San Praixkuak, ez horixe. Kurtsoa hasi berria, motxilatik pala eta toaila kendu eta libu-ruak sartu behar. Horregatik gogoz hartu ohi ditugu udako festa zerrendan azkenak diren hauek, azkena izanagatik txa-

rrenak ez direlarik.

Saltsa giroan sartzen joateko urtero bezala hasiak dira pelo-ta txapelketak. Aurtengoan, futboleko eta pelotan palaz eta eskuz lehiatzeko aukera izango da.

lizena emateko epea pasea da ja, beraz, orain arte izena eman ez dugunok ikustera joateko aukera izango dugu. Partidutako egu-nak eta orduak jakin nahi izanez gero, Arraten daude.

Ibai hertzean ixkiretan ibiltzen direnentzat ere iritsi da hurbil-tzeko garaia. Ia, ixkira tamaina politeria iritsia da eta bada arratsalde pasa salabardoak hartuta joaten denik ere.



ZUBIETA

Udarako haurtzaindegia

Olatz De Miguel



Herriko jaien ondoren, lasaitasuna nabari da zubietarren artean. Hala ere, ez dute atseden haundirik Zubietako udarako haurtzain-degian dabiltzan umeen begi-raleek. Azkenean proiektua aurrera atera da, eta egia esan, oso erantzun ona izan du. Uztailean zehar 12 ume bildu diren bitartean, abuztuko hilabeterako 20 bat ausartu dira. Ez dute lan makala izan bi arduradunek!

Haurrek betiko jokuetan ibil-tzeaz gain, Zubietako eta baita San Estebango txokoak ezagu-tzeko aukera ere izan dute

egindako eskurtsioen bidez.

Alde batetik pozgarria bada ere Zubietan hain-beste haur bildu izana honelako ekin-tza baterako, beste alde batetik harrizkoa da gero kur-tsoa Zubietako eskolan ematen duten haur kopuru hain txikia izatea. Zubietan hainbeste ume izanda, zergaitik daude hainbeste arazo legeak hone-



lako eskola bat aurrera atera-tzeko eskatzen duen haur kopurua biltzerakoan? Ez dakit zein izango den konponbidea, baina Zubietan haur faltarik behintzat ez dago, hori argi geratu dadila.

69. zenbakiko artikuluari (Erdera nagusi Lanbide Hastapenean) erantzuna

Kokapena

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburuak lortzen ez dituzten ikasleentzat Gizarte Bermeko programa berezi batzuk antolatzen dira. Programa horien bidez, oinarrizko eta lanbideko prestakuntza ematen zaie ikasle horiei, bitzita aktiboan abiatzeko eta beren ikasketak jarraitzeko modua izan dezaten.

Bai hezkuntzari buruzko egungo legedian eta bai Euskal Eskola Publikoaren legean ezarritakoaren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bidez, herritar aktibo gisa gizartean integartzeko bezainbesteko prestakuntza eman behar zaie ikasle guztiei. Horretarako, behar diren laguntza pedagogikoak eta curriculum egokitzapenak erabaki dira hezkuntza sisteman.

Hala ere, ikastetxeek seguru-eruenik, aurrerantzean ezin izango dute ezer egin zenbait egoeretan. Horrelakoetan, zenbait ikaslek, derrigorrezko hezkuntzari dagozkion helburuen jabe egin gabe, eta lan munduan abiatzeko titulorik gabe hezkuntza-sistema arautua bertan behera uzten badakite.

Gazte talde horren egoera eta ezaugarriak direla eta, Gizarte Bermeari buruzko pro-

gramak (Lanbide Hastapeneko Ikastetxea) martxan jartzen dira gazte horiei oinarrizko eta lanbidezko prestakuntza emateko. Prestakuntza horren bidez, beren inguru soziala, kulturala eta familiarra kontutan izanda gazte horiek dituzten beharizan bereziei erantzuna eman nahi zaie. Zehatzago esanda, arreta berezia eskeini behar zaie gizartean parte hartzeko jarra positiboa sortzeari eta finantzeari bai eta ikasteko motibazioa berreskuratzeari ere.

Lankidetzaren hitzarmena

1994ko ekainaren 6an sinatutako lankidetzaren hitzarmenari esker Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek Lanbide Hastapeneko Ikastetxeko programan elkarlana egiteko konpromezua hartu zuten. Eskualdean guztira zazpi tailer daude eta guztion artean plazarak banatzen ditugu; horrela, Usurbilgo tailerretara eskualdeko gazteak etortzen dira eta alderantziz.

Ikaslegoaren profila

Gazte bakoitzaren errealitatea berezia eta besteengandik desberdina bada ere, L.H.I.ra datozen ikaslegoaren profila egin daiteke. Aurrez aipatutako herrietan bizi diren 16-20 bitarteko gazteak dira, D.B.H.ko helburuak lortu ez eta

ikastetxeetatik kanpora egon eta langabezia daudenak. Gehiaengoak ez daki euskeraz (ikastetxe arautuan A eredutik datoz) eta beraien ingurune sozio-familiarra ere ez da euskalduna. Horregatik, banan-banako irakaskuntzaren bidez gazte bakoitzaren behar bereziei erantzuna ematen saiatzen gara (irakaskuntza pertsonalizatua). Batez ere arlo pertsonala lantzen saiatzen gara: heldutasun pertsonala.

Euskararen erabilpena

L.H.I.ko programa banan-banako ikaslegoari egokitu behar izaten da urtez urte, eta ikaslego horren ezaugarriak kontutan harturik urteko programaketa antolatzen dugu. Hau horrela izanik, helburu bereziak, edukiak, ekintzak, metodologia eta ebaluaketa sistema urtero berrikusi behar da eta ikaslegoaren profileria egokitu.

Usurbilgo L.H.I.ko hezitzaileok euskararen erabilpenaren alde gaude. Hizkuntza zahar hau bultzatu eta suspertu behar dugu ahal dugun neurrian. Beraz Noaia!ko 69. zenbakian ateratako artikulua erekin ez gaude ados goian aipatu ditugun arrazoeingatik. Gai honi buruz informazio falta eta ezjakintasuna nabarmendu dugu.

Usurbilgo L.H.I.ko lankideak

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubiaurenea, 10

Tlf. 943 37 18 07- Fax.: 943 37 63 41

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL




1999ko bigarren kreditu aldaketa

Pasa den uztailaren 27an egin zen plenoan, urteko bigarren kreditu aldaketa onartu zuen udalak. Hilerrri berria egiteko aurreikusita zegoenari gehituko zaion diruak hartzen du gastuen gehitzearen zati haundiena.

Guztira 36.063.504 pezeta-koa izango da kreditu aldaketa hau. Partiden gehitzeari dagokionez, hilerrri berria egiteko aurrez aurreikusitakoaz gain, 30.000.000 pezeta gehiago bideratuko dira. Hauxe izango da arlo honetan eman- goren aldaketa bakarra.

Bestalde, 1999ko aurrekontuan aurreikusi ez ziren hiru partida berri bideratu dira kreditu aldaketa honetan. Alde batetik Agerialdeko sukaldea berritzeko 1.656.900 pezeta erabiltzea onartu du udalak. 1999-2000 ikasturtean garatu-ko diren sukaldaritzako ikasta-



roak egiteko beharrezkotzat jo da sukalde zaharra erretiratu eta berri bat erostea. Hiru enpresei aurrekontuak eskatu ondoren M.Uranga S.L. enpresari erosi zaio sukaldea 652.500 pezetaren truke. Horrez gain, gas naturala jarri beharko da, eta kostua 677.406 pezetakoa izango da.

Beste aldetik, Santueneako Gure pakea zahar egoitzako konponketak egiteko 4.300.000 pezeta bideratu dira, eta 106.604 pezeta uholdetako argazki eta bideoentzat.

Sarrerei dagokionez, eraikuntza eta instituzio zerga eta Eroskiren kontribuzioaren bidez lortuko da diru hori.

Sabaiaren erorketa Gure Elkarteon

Santueneako "Gure Elkarte" zaharren egoitzako egongelako sabai baten zatia erori egin da goiko solairura lotzen zuen zuntz eta igeltsua libratu ondoren.

Udalak, kreditu aldaketan, konponketa lanak egiteko 4.300.000 pezeta bideratzea erabaki zuen. Sasi sabaia konpontzeko, eskaiolazko zatua bota eta zaborte-gira eraman ondoren, tarima altxatu, lurrean isolamendua jarri, masa bota eta lurreko plaketa jarri dute. Horrez gain, lurra nibelatu ondoren tarima berria jartzea ere beharrezkoa izan da.



N • U
Ileapaindegia
MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51



Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES
SETABU, S.L.
TAILERRAK

Ugarte Industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tel.: 943 36 08 48

OSTAPE
ARANGUREN

GASA
eta

BEROKUNTZA


☎ 943 36 43 64 - 943 36 16 95

Ziortzako kanpaldiak ere egin zuen berea

Ziortza Gazte Taldeak bere kanpaldia burutu zuen uztailean Cameros bailara aldean. Hilabetez Ortigosako Peñaloscintos auzoan egon ziren 12-16 urte bitarteko gazteak. Bi txandatan banatuta, Cameros bailarako leku desberdinak ezagutzeko aukera paregabea izan dute.

Lehenengo txandan 14-16 urte bitarteko 30 gazte izan ziren. Aurten gainera, usurbildarrekin batera Debako zenbait gazte ere izan dira bertan lehen txanda honetan.

Bigarren txandan, berriz, 12-14 urte bitarteko 37 hurrek ondo asko pasa zuten Uztaileko azken bi asteetan.



Zumarte musika eskola martxan da berriz ere

Irailean sartzearekin batera ikasturte berriaren hasiera gero eta gertuago dago. Zumarte musika eskolan ere laister entzungo dira instrumentu desberdinen doinuak. Irailaren 6tik 10era bitartean matrikulatzeko aukera izan ondoren irailaren 20an hasiko dira klaseak.

Urtero bezala aukera zabala eskaintzen du herriko musika eskolak. Prestakuntza, musika mintzaira, tronpeta, saxofonia, bibolina, perkusioa, klarineta, abesbatza, alboka, pianoa,

trabeskako flauta, tronboia, txistua eta kitarra ikasteko aukera izango du nahi duen guztiak.

15 ikasgai hauetako batekin hasi edo jarraitu nahi duten guztien eginbeharra erraza izan da. Irailaren 6tik 10era bitartean Zumarte musika eskolako ateak irekita egon ziren iaz bezala, 115 ikasle inguru izango ditu aurten ere Zumarte Musika Eskolak.

Honenbestez, musika ikastaro hauei datorren irailaren 20an emango zaie hasiera.



Ramon Brit: "Elguetak ez zuen etxe fижorik, denetan bizi zen baina ez zen inon bizi"

Berrogei urte plazan soinu txikia jo gabe egon ondoren, Larraulen bi orduko erromeria eskaini zuen Ramon Brit usurbildarrak abuztuaren 22an. Orion jaio eta Usurbilen ia 35 urte bizi-tzen daramatzan gizonak, Jacinto Rivas "Elgueta" trikitilari zenarekin aurrez aurre ikasi zuen trikitixa jotzen 12-13 urte zituenean. Denbora askoan plazetatik urruti egon bada ere, Elgueta zenak irakatsita-ko piezak ez zaizkio ahaztu.



Noiz eta nola hasi zinen trikitixa jotzen?

Lehendabizi izena esatera ez noan trikitilari batekin hasi nintzen 12-13 urterekin, baina jotzea eta irakastea bi gauza desberdin ziren eta harekin ez nindoan inora. Beste trikitilari batek soinua jotzen ikusi ninduen eta esan zidan: "*Hik soinua jotzen ikasiko huke, joan hadi Elguetarengana*". Honela ba Elguetarekin soinua txikia jotzen ikasten hasi nintzen. Hiruzpalau urtean jendeaurrean jotzen nengoen. Lotsatia nintzen eta ez nuen hasi nahi, baina Elgeta berak aurkitu zidan lana. Jende aurrean ez jotzekotan ikasten alferrik ari nintzela esanez plazan jotzera derrigortu ninduen.

Non jo zenuen lehen aldiz?

Orioko San Martin auzoan. Garai hartan bi erromeri izaten ziren Orion: bolada batean San Martinen nik jotzen nuen eta goian Maltzetak. Igandero igandero jotzen nuen hiru urte ingurura bi erromeriak desagertu ziren arte. Urte erdi batean biak itxi eta ordutik gaur

egunera ez da igandero erromeriarik izan.

Zergatik amaitu ziren erromeria hauek?

Ez hauek bakarrik, garai hartan beste asko itxi zituzten. Hiru urtetan aldaketa izugarria izan zen. Ni soinua jotzen ikasten hasi nintzen garaian baserrietan ez zen irratirik ezagutzen. Lau

Elguetak jende dexenteri erakusten zion. Asteartean etorri eta larunbatean joaten zen. Gero txandaren zain egon behar

urtera berriz txaboletan ere bazegoen irratia. Horrez gain bideak egin zituzten, motoak azaldu ziren... izugarriko mugimendua sortu zen. Jendea erromerietara joan beharrean zinera edo tabernetara joaten hasi zen. Hor bukatu zen erromeriaren etorkizuna.

Elguetarekin ikasi zenuela

esan duzu. Jende askok ikasten al zuen berarekin?

Bai jende dexente ibiltzen zuen. Igandean han edo hemen jo eta asteartean etortzen zen gehienetan. Elgetak ez zuen etxe fижorik, denean bizi zen baina ez zen inon bizi. Igandean erromeriren batean jo eta asteartean Sakabirekin biltzen zen Azpeitiko ferian trikitixa jotzen irakasteko eskaera non zuen jakiteko. Gure baserriara astearte arratsaldetan etorri eta larunbat arratsaldetan joaten zen normalean. Gero txanda itxaron behar. Txandan txandan ikasle guztiak pasatzen zituenez, zeukan eskaeraren arabera nire hurrengo txanda bat, bi edo hiru hilabetera izaten zen. Lista bat edukitzen zuen eta bakoitzarekin aste bat pasatzen zuen. Nik lau bat urte egin nituen berarekin, bizpahiru hilabeteko ikastaroa gutxi-gorabehera.

Nola ikasi zenuen zuk trikitixa jotzen?

Aurrez aurreko sistemarekin. Bi siletan aurrez aurre jarri eta

berak pieza nola jotzen zuen ikusiz ikasten nuen nik. Soinua jotzen gaur ikastea edo orduan ikastea oso desberdina da. Gaur egun ia pieza guztiak kasetetan daude eta buruz ikasi ditzakezu. Behin buruan sartuta eskuek segituan egiten dute bere lana. Niri Elgueta etortzen zitzaidan eta ea zer pieza ikasi nahi nuen galdetzen zidan. Zenbait pieza jotzen zituen nik haletatik bat aukeratzeko. Hori bai, aurretik nik inoiz entzun gabeko pieza izaten zen. Orduan oso zaila zen soinu jotzen ikastea, grabaziorik ez zegoen eta.

Astebetetz pieza bat ikasteko denbora ematen al zizun?

Pieza bat dominatzen hastean beste pieza bat ikasten hasi nahi izaten genuen. Honela hurrengo txandan etortzen zenerako ondo ikasteko nahiko denbora izango genuela pentsatzen genuen. Baina ez. Berak jotzen zuen bezala jo arte ez ginen beste pieza batekin hasiko. Zenbait etxetan proba bat ere egin omen zuen: orduan baserri gehienetan sukaldea behean izaten zen eta gelak goian. Sukaldekoek maixuak edo ikasleak jo zuen dudan jarri arte ez zen beste pieza batekin hasten. Osteguna etortzean beste pieza batekin hasiko ote ginen esatean zera esaten zuen: "ez, ez, ez... pauso luzea ez. Lehendabizi pieza hau ondo ikasi behar da eta gero ikusiko dugu". Hark ez zuen ezer barkatzen, perfekzionista zen.

Zenbat pieza ikasi zenituen Elguetarekin?

Berrogei-berrogeitahamar pieza inguru, baina soinua jo gabe egon naizen urteetan ez zaizkit ahaztu. Harekin ikasi zuenetatik inork ez zituen pieza haiek ahaztuko. Tatuajea tintakin jartzen den modura sartzen zizun Elguetak pieza.

Trikitixa jotzen ikasteko irakasle asko zeuden garai hartan?

Elguetak bakarrik irakasten zuen teknika horrekin. Haren ikasleren bat irakasten hasi ezker berdian irakatsiko zuen, baina garai hartan inork ez zuen erakusten. Ez zegoen gaurko aukerarik. Harekin ikasi behar zenuen edo jai zeneukan. Ikasi nahi bazen harek esandakoa egitea beste aukerik ez zegoen, konpetentziarik ez zeukan eta.

Zuk soinu txikia jotzen zenuen baina, nork jotzen zuen pandereroa?

Garai hartan bakarrik jotzen nuen. Gerra baino lehen panderistak bazeuden, baina gerra ondorenean ez. Erromeria panderistik gabe egin daiteke, baina soinu jotzailerik gabe ez. Gerra ondorenean diru gutxi zen, eta biak eraman nahi izan ezker bi soldata ordaindu behar ziren. Horregatik, soldata bat ordaintzeagatik, soinu jotzailea bakarrik eramango zuten. Hori uste dut nik behintzat.

San Martingo erromeriak bukatu eta gero zer egin zenuen?

18 urte nituen hura bukatu zenean. Gero batera eta bestera ibili nintzen, baina ez zen erraza. Orioko benta inguruan bizi nintzenez soinua bizkarrean hartu eta handik oinez Iturriotza, Granada erreka, Meagasea joaten nintzen. Hura ez zen ibilera. Eguraldi onarekin ondo, baina neguan haizea, euria eta hotzarekin joan zaitez oinez.



Elguetarekin ikasi zuenetatik inork ez zituen pieza haiek ahaztuko. Tatuajea tintarekin jartzen den modura sartzen zizun pieza.

Erromeriren batera joan gabe gelditu ere bai ezta?

Bai horixe. Pinuak izotzak ihartu zituen urte batean, izugarrizko elurtea zegoela Elkanora joan behar nuen. Nola joango nintzen, gerrirainoko elurtea zegoen eta? Ez nintzen joan.

Gogorra izango zen horrela ibiltzea ezta?

Hura ez zen ibilera. Garai hartan afai aurretik jotzen genuen, baina gero ere pieza batzuk jo behar izaten genituen. Gaueko 12.00etan edo 1.00ean bukatu eta abiatu zaitez Granada errekatik Oriora oinez! Ezinezkoa zen, ezin zen horrela ibili. Neurri haundi

rizketa

batean horregatik utzi nion plazetan ibiltzeari. Erabaki sendoa izan zen. 17-18 urterekin soinua jotzeari utzi nion.

Erabat utzi zenuen soinua txikia?

Momentu hartan bai. Gero soldaduskara joan nintzenezan soinua eraman arazi zidaten, eta han jotzen nuen soldaduen erresidentzian eta ofizialenean ere bai. Handik etorritakoan lanean hasi nintzen eta ez nuen jotzen. Hala ere base-rian pipiak jaten zegoen soinua etxera ekartzea erabaki nuen.

Eta 40 urteren ondoren berriz ere plazara?

Kasualitatea izan zen. Martinen soinua dendara joan eta soinua bat probatzen hasi nintzen. Bera ikasleei klaseak ematen zegoen eta han azaldu zitzaidan. Pieza pare bat jo ondoren zera esan zidan: "zu ez zara hemengo!" Nik Usurbigoa nintzela esatean berak: "Zu Usurbilgoa? Usurbilen maila horretako trikitilari egon eta nik ezagutu ez? Ba

piezak horiek pipiak jaten alferrik daude. Etxean jotzeko bakarrik pieza horiek ez dute balio, horiek jende aurrean jo behar dira, horren gosea dago eta". Honela bada Larraulgo jaialdia antolatu zuen.

Hainbeste urte erromerian jo gabe eman ondoren nola sentitu zinen?

Ondo edo gaizki jo nuen entzuten egondakoek esan beharko dute. Ni behintzat gustora aritu nintzen. Berrogei



urte etxean egon eta kanpoan jotzean urduri jartzen zara. Jendea dantzan eduki genuen behintzat eta...

Egunero jotzen al duzu soinua txikia etxean?

Gehienetan bai. Askotan etxean bakar bakarrik nagoenezan eskusoinuari heltzen diot. Txikitatik ikasi nuen eta jo egiten dut. Egia esatekotan gero eta gehiago jo erraztasun haundiagoa dut, eta gustora jotzen dut. Ahal dudan arte soinua txikia jotzen jarraitzeko asmoa dut behintzat.

Oraingo erromeriak, lehengo erromeriak...

Gure garaian soinua hotsa ateratzen hasi orduko jendea dantzan hasten zen, eta azkenengo neskek alde egin arte han ez zen dantzarik falta izaten. Orain berriz, jendeak erromerian dantza gutxi egiten duela esaten dute. Hala ere nik Larraulen eskaini nuen erromerian dantza ugari egin zuten.

Josu Aranberri

“Haundi nahi haundikoa baina trikitilari ona zen Elgueta”



Nolako pertsona zen Elgueta?

Oso pertsona arraroa zen, haundi nahi haundia zeukan. Bazekien bera zela onena eta trikitixa maixua ere bera zen bakarra. Erromerian hauts pixka bat altxatzen bazen, laister eskatzen zion jendeari lurrean ura botatzeko. Hauek ez bazuten botatzen jeitsi eta berak botatzen zuen. Sukaldea eskobatzen ez hasi bera barruan zela el lsetsa harrapatutako katua baino lehenago alde egiten zuen sukaldetik.

Eta trikitilari modura?

Garaian zen onena. Bera edo harekin ikasitako bat soinua jotzen ari zenean urrutitik ematen zitzaion tankera, lehendabiziko hiru-lau notetan. Haren banda desberdina zen besteetatik. Helduko doinuak jotzen Elguetak lehen ez zuen parekorik eta gaur egun ere ez. Hura soinua zikin harekin pasodobleak jotzen ari zenean banda municipalari zela zirudien.


Istripu larria N-634 errepidean

Abuztuko azken aurreko asteburua berri txar batekin hasi zen, Hilaren 20an, ostiralean Etxealdia-ko burnizko zubiaren ondorengo bihurgunean izandako kotxe istripuaren ondorioz Lasarte Oriako Luis Santos 19 urteko gaztea hil zen. Gazte hau jubenil mailan Usurbil Futbol Taldeko jokalaria izan da azken hiru urteetan.

Istripua goizeko 7.30etan gertatu zen. Aginagara bidean, Lasarte Oriako gazteak zihoazen Volkswagen Golf kotxea Etxealdiako burnizko zubiaren ondoren dagoen bihurgunean bidetik atera eta bide bazterrean dagoen segurtasun hesiari jo ondoren, bere bidean zetorren Opel Kadetta jo zuen.

Istripuaren ondorioz sei pertsona zauritu ziren, baina hauetako bat, 19 urteko Luis Santos lasarte-oriarra larrialdi zerbitzuak eraman baino lehen bertan hil zen. Beste hiru, 17 urteko A.R.G., 26 urteko D.S.O. eta 54 urteko E.G.C. Donostiako Policlinikara eraman zituzten eta 21 urteko D.C.M. eta 25 urteko A.V.G. ospitalera. Zauritutakoetako hiru kotxe barruan atera ezinik gelditu ziren burni tartean eta suhiltzaileek atera behar izan zituzten.

N-634 errepidea moztuta egon zen goizeko 9.30ak bitartean. Horregatik herri barrutik kotxe ugari pasa ziren denbo-



Istripuan hil zen Luis Santos lasarte-oriar gazteak Usurbil Futbol Taldeko jubenil mailan jokatzen du azken urteetan

ra tarte horretan. Erreskate lanak amaitu eta kotxeak errepidetik kendu ondoren 9.30ak aldera bidea ireki zuten.

Hildakoa eta beste hiru gazteak Aginagara zihoazen piperrak biltzera istripua izan zutenean. Urte sasoi honetan gazte asko ibiltzen da piperrak jasotzen eta Lasarte Oriako gazteak izaten dira asko. Dirudenez istripua gertatu aurretik "auto stop" ean hartu zituen Volkswagen Golfeko gidariak.

Luis Santos hildakoa Lasarte Oriakoa bazen ere ezaguna zen zenbait usurbildarren artean. Gazte honek Usurbil Futbol Taldean eman ditu azken urteak. Kadete eta jubenil mailan herriko taldearekin aritu da azken denboraldietan. Azken denboraldian adibidez jubenilen bigarren mailatik lehen mailara igotzea lortu du taldeak.

Andatzatik helikopteroz eramana

Andatzan motorrarekin triala egiten ari zela istripua izan ondoren, M.F.I. 32 urteko usurbildar gaztea helikopteroz eraman zuten Miramongo heliportura gero handik ospitalera eraman ahal izateko. DYako ambulantiak istripua gertatu zen lekura joan baziren ere, bizkarrean zauri larria izan zezakeelakoan helikopteroz eramatea erabaki zuten.



Kale Nagusia, 9
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

USURBIL



TABERNA

"GYRE PRESOAK

HERRIAN BEHAR DITVGV"

Iraza kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

J^o Antonio Gorgojoren erakusketa

Jose Antonio Gorgojo usurbildarrak eta **Luis Rubio** bere lagunak pintura erakusketa bat izango dute datorren irailaren 27tik urriaren 15a bitartean Lugaritz kultur etxean. Pintura oso gustoko duten bi artista hauek beren eginbeharrak beren afizio onenarekin tartekatzen dute, pinturarekin. Horregatik beraien lanak jende aurrean erakutsi nahi dituzte. Artea gustoko duzuenok Antiguoko Heriz pasealekuan dagoen Lugaritz Kultur etxean duzue zita.



Abuztuaren 26an Baba Beltz Kofradiak urteroko bazkaria egin zuen Andatzpe elkartearen. Duela 15 urte inguru hasi zuten ohiturari jarraituz Usurbilgo eta inguruko herrietako 45 pertsona inguru bildu ziren abuztuko azken ostegunean egiten duten bazkariara. Bazkariaren ondoren Baba Beltz Kofradiako kofrade berria izendatu zuten. **Felix Sarasola** izan zen lehena, **Joxe Luis Iburguren** bigarrena eta aurten **Joxe Torregarairantzat** izan dira kofradiako kapa eta txapela.

Michelinen lanpostu gutxiago

Frantziako Michelin konpainiak Europa osoko bere enpresetan 7.500 lanpostu kenduko dituela ezagutzera eman zuen pasa den irailaren 8an Parisen. Hala ere, lanpostu hoiien desagerpena nola gauzatu den ez zuen jakitera eman. Hiru urtetan burutu nahi dute guzti hau, eta honek Usurbilgo lantegian eraginik izango duen hala ez ezin da jakin. Neurri honek ordea, ezustean hartu ditu sindikatuak, azkenaldi honetan gazte asko lanera sartu direlako.



Udarako atsedenaldia pasa ondoren, gimnasia eta Aerobikeko ikastaroak urrian hasiko dira. Oiaro kiroldegian burutzen diren kirol hauetan izena emateko aukera izango duzue irailaren 25etik aurrera. Orain arte gizonezkorik azaldu ez denez, hauek izen ematera animatu nahi dituzte ardurdunek. Bestalde, gimnasia egin nahi duten 3. adinekoek, bilera izango dute urriaren 5ean Oiaro kiroldegian goizeko 10.00etan. Ur ludoteka eta igeriketa eskolan ere izena eman dezakezu ja.



Pasa den irailaren 6an urteko hirugarren odol emanaldia izan zen herriko anbulatorioan. Opor garaiak pasata, jende dexente gerturatu zen egun horretan. Guztira 55 usurbildarrek eman zuten odola. Beraz, 22 litro odol bildu ziren Odol Emaleen elkartearen arabera. Urtea amaitu baino lehen izango da berriz ere odola emateko aukerarik. Datorren urriaren 25ean izango da urteko azken odol emanaldia. Animatu zaitzete, odol pixka bat ematea ez da ezer kostatzen eta!

**BORDATXO
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban

Tlf.: 943 36 22 55



BAZKARIAK
ETA AFARIAK

Santuenea 23
Tf.9433627 34

Hasi da Endika Abil errebote txapelketa

Hasi da Endika Abril errebote txapelketa. Abuztuaren 22an eman zitzaion hasiera 36. ekitaldiari eta eguraldiak laguntzen badu behintzat urrian amaitzeko asmoa dute. Aurten zortzi talderen arteko lehia izango da, iaz baino lau gutxiago, eta tartean izango dira Zubietako Pelota Elkarteko bi talde. Ekitaldi honetako finala Zubietako plazan jokatu da.

Iaz Endika Abril txapelketa amaitzeko nahikoa lan izan zuten. Eguraldiak ez zuen lagundu eta udazkenean amaitu beharrean maiatza arte luzatu zen txapelketa. Aurten, berriz, inoiz baino lehenago hasi dira. Abuztuaren 22an lehen partiduak jokatu ondoren, urria bitartean aste-bururo errebotearekin zita izango dute pelotazale guztiak Zubietako eta Billabonako plazetan.

Guztira zortzi talde arituko dira lehia 36.ekitaldi honetan.




Bi taldetan banatuta ligaxka partiduak jokatu dituzte lehendabizi, gero final-laurdenak, finalerdiak eta finala jokatuzeko. Talde horietatik erdiak Hego Euskal Herrikoak dira eta iparraldekoak beste erdiak.

Lehen multzoa Uztaritze, Zubietako I, Kanboarrak eta Bear zana II Billabonako taldeek osatzen dute, bigarrena berriz, Bear zana I, Zubietako II, Baiona eta Hasparren taldeek.

Zubietarrei dagokionez, iaz bezala bi talde aurkeztu dituzte. **Zubietako I** taldea Imanol eta Joseba Aizpurua, Imanol eta Endika Garcia eta Gaizka Iparragirrek osatzen dute. **Zubietako II** taldean, berriz, Xabier Mariezkurrena, Isidro Zaldua, Jon Huizi, Joxe Antonio Segurola eta Gorka Sanchez arituko dira.

Abuztuaren 22an jokatuak partiduetan Bear Zana I Billabonako taldeak 13-1 irabazi zion Zubietako II taldeari Billabonako plazan jokatuak partiduan, eta Zubietako I taldean 13-2 mendean hartu zuten Zubietako plazan Bear Zana II taldea. Bestalde, Uztaritzek 13-6ko garaipena lortu zuten Kanboarren aurka.

Abuztuaren 29an beste hiru partidu jokatu ziren: Zubietako I 13 Uztaritze 9, Baiona 13 Bear Zana I 8 eta Kanboarrak 13 Bear zana II 2




Opari aukera zabala

Atxegalde, 10 Tel. 36 65 42

GALARRAGA GARRAIOAK

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

LIZARDI LIBURUDENDA

Eskolarako materiala

Maila guztietako testu liburuak

K/ Etxebeste, 1 USURBIL
Tel.: 36 11 15 (Gipuzkoa)


Asier Zubiria Europako azpitxapelduna

Asier Zubiria usurbildar gazteak jubenil mailako Espainiako selekzioarekin Portugalen jokatu duen Europako eskubaloi txapelketan bigarren postua eskuratu berri du. Horrez gain, Ohorezko mailako Bidasoa eskubaloi taldeko hirugarren atezaina da eta aurrendenboraldiko partiduetan behintzat jokatzen ari da.

Iazko denboraldian Usurbil Kirol Elkartetik Irungo Bidasoa taldera joan ondoren denboraldi bikaina burutu du Asierrek. Irungo taldeko jubenil mailako taldean jokatu badu ere, ohorezko mailan lehen taldearekin debutazeko aukera izan zuen, eta aurtengo abuztua ez da nolana hikoia izan berarentzat.

Abuztuko lehen hamabostaldian Portugalen izan da Espainiako selekzioarekin jubenil mailako Europako txapelketa jokatzen. Bertan azpitxapeldunak izan ziren hungariarren aurka 24-23 galdu ondoren. Finalerdietan adibidez, usurbilgo atezainak hiru penalti gelditu zizkien errusiar jokalariei.

Bigarren hamabostaldian, berriz, ohorezko mailako Bidasoa taldearekin entrenatzen aritu da. Ez hori bakarrik, aurre denboraldian jokatutako partiduetan ere parte hartu du usurbildarrak. Portland San Antonioren aurka jokatu zuten partiduan adibidez, partidu hasiera bikaina izan zuen, penaltia geldituz eta guzti.



David Asensio Athletikekin entrenatzen



David Asensio futbolari usurbildarra urtez urte mailaz igotzen ari da. Lehen urtea jubenil mailan egin ondoren, iaz hirugarren mailan jokatu zuen Baskonia taldearekin, eta bertan denboraldi bikaina burutu zuen. Bera izan zen taldeko goleatzaile onena 15 golekin eta 20 urtez azpiko Espainiako selekzioaren aurreselekzioan ere izan zen.

Aurten, berriz, bigarren B mailan jokatuko du Bilbao Athletik taldearekin. Lehen bi partiduak jokatu ez bazituen ere, azken partiduan bigarren zatia jokatu zuen. Hala ere David Athletikeko lehen taldearekin entrenatzen ari da azken aldi honetan, eta Alavesen aurkako lagunarteko partiduan jokatzeke aukera izan zuen usurbildarrak.

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia

MAHUKA
*Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*
UDAZKEN HONETAN ZURE MODA BERRIA

Obra ugari herriko bide eta auzoetan



Herriko kale eta bide desberdinetan egiten ari diren lanak ugariak dira azkenaldi honetan. Kaleberrin, Kalezarren, Etxealdian, Irubide aldean... kamioiak, lurra mugitzeko makinaria, hodiak... oraindik ere mugimendua behintzat, etengabea da.

Gernika ibilbidean, anbulatorio aurretik Arrobitxuloko errotonda bitarterainoko bidea itxita egon da uztaila eta abuztuan. Herriko langileak gas hodiak sartzen aritu dira, eta bide batez inguru guztia berritu dute. Orain, Gaztañagatik Arrobitxuloko errotondainaro espaloia jarri dute. Bide hori, anbulatorioko aparkalekua eta Agerialdeko futbol zelaia asfaltatzeko erabakia hartuta bazegoen ere, pasa den uztailaren 27an egin zen Gobernu Batzordean, lan hori Guipasa enpresak egingo zuela erabaki ondoren, azken asteetan aurrera eramaten ari dira lan horiek. Oraingoz anbulatorio aurreko aparkalekua haunditu egin dute.

Etxealdian, berriz, urbanizazioa zaharberritzeko lanak hasi dira. Sarrera berria eta aparkalekua amaitu badituzte ere, lurra mugitzeko makinariak ez dituzte begitik kenduko. Datozen hilabeetan, azpiegitura guztia berrituko dute.

Abuztuaren 23az geroztik itxita dago Troiako bidea. Ura behar den bezala joateko hodi berria jartzen ari dira Troiatik Esperantza bitarteraino. Horregatik Troiatik Kalezarrera joateko bidea itxita egongo da lan hauek amaitu bitartean.

Azkenik, Aritzetako autobidea N-634 errepidearekin lotzeko lanak aurrera jarraitzen dute. Autobide berria irekita badago ere, laister amaituko dutela dioten arren, Irubidetik autobiderako sarrera irterak amaitu gabe daude oraindik.

Josu Aranberri

1999/2000 ikasturtea martxan da

Iraila ez da ikasleontzat gustoko hilabetea izaten. Udako oporrei agur esan beharrak batetik eta iraileko azterketak bestetik hilabete gogaikarria bihurtzen dute. Pasa berri den irailaren 9an Udarregi ikastolako eta Aginaga, Santuenea eta Zubietako eskoletako haurrek hasiera eman zioten aurtengo ikasturte berriari.

Aurten ere ikasle kopuruak gora egin du Udarregin. Gu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren nondik norakoak jakin nahian, Ikastolako zuzendari berriarengana jo dugu, aurten ikasturte berriarekin batera **Begoña Eizagirre** baita zuzendari berria. **Juango Gomez** zuzendari ohiak bere lekukoa utzi baitio denok eza-gutzen dugun "ingeleseko irakasleari". Zuzendariak errez-tu ahal izan dizkigun datuen arabera, ikasle kopuruak gora egin du aurten ere. Haur hezkuntzan bi urtetako 33 haur matrikulatu berri dira, orotara 128koa izanik haur hezkuntzako ikasle kopurua. Lehen hezkuntzan 193 eta DBHn 138 ikasle izan dira matrikulatuta-koak. Guztira 460 ikasle ditue-larik egun Udarregi ikastolak.

Begoña Eizagirre zuzendaria baikor agertzen da datu hauen aurrean, "urte hontako bi urteko haurren urteko jaiotza-tasa 51 izan zen, eta guk 33 haur ditugu. Beraz, esan daiteke portzentai nahiko altua daukagula, suposatuz gainera datorren urtean hiru urterekin sarrera berriak topa-tuko ditugula, hiruren bat gutxi gora behera."

Egun Udarregi ikastolan 2-16 urte bitarteko ikasleak daude. Hau aldaketa handia izan da eskolarentzat; bai espazio aldetik, bai baliabide pedagogiko eta pertsona

MATRIKULA KOPURUA

Udarregi ikastola (2-16 urte)-----	440 ikasle
Santueneako eskola (2-8 urte)-----	14 ikasle
Aginagako eskola (2-8 urte)-----	9 ikasle
Zubietako eskola (2-8 urte)-----	8 ikasle

aldetik. Izan ere, alde hontatik bi urtez hezkuntza luzatzeak egokitzapen handia eta gauza asko gehitzea suposatu baitio ikastolari. Bestetik, irakasleen formakuntzan ere eragin du. "Arlo honetan lan handia egin da eta egiten ari da oraindik ere: curriculumen prestaketak arlo bakoitzean adibidez. Besteik, arlo berriak sartzeak ere irakasle goa beritzea suposatu digu. DBHk batez ere adin berri batekin lanean hastea ekarri digu. Hau dela ete, adin berri hortara egokitu behar izan dugu bai irakasleok eta baita ikasleak ere".

Eskola txikiak

Hiru eskola txiki daude Usurbilen; Santu Eneakoa, Zubietakoa eta Aginagakoa.

Eskola txiki hauetan aurre hezkuntza etapa asoa ematen da, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako hasiera zikloa.

2- 8 urte bitarteko haurrekin dabilta lanean eta haur kopuru hauek urtero nahiko paretsu mantentzen direla esan daiteke, Santueneakoa salbu. Izan ere, aurtengo ikasturtean iazko matrikulazio kopurua bikoiztu egin baitute. Aurten hamalau ume daude Santuenean, zortzi Zubietan eta bederatzi Aginagako eskolan, azken honetan lau ume haur hezkuntzan daude-larik eta beste bostak lehen hezkuntzako zikloan. Eskola txiki hauen etorkizunari buruz galdetu diegunean, baikor agertu zaizkigu irakasleak.

Agurtzane Solaberrieta



Irailaren 19an Euskal festa Zubietan

Garai bateko ohitura zaharrari jarraituz euskal festa izango da aurten ere Zubietako plazan. Ez noski Donostia eta Zarautzko euskal festen tamainakoa, baina bai Zubietari bizitza eta jai giroa emateko adinakoa. Euskal giro jatorraren bila bazabiltza Zubietan duzu egun osoko zita irailaren 19an.

Beste urte batez 90. hamarkadan berreskuratutako euskal festa izango da Zubietan. Azken urteetako tradizioari jarraituz iraileko hirugarren igandean izango da zer gozatu bertako plazan. Izan ere 1991. urtean berreskuratu zen aintzina oso garrantzitsua zen festa hau, eta tartean urte bateko atsedenaldia izan bazuen ere laugarren urtez jarraian zubietar eta beste askoren bilgune bihurtuko da Zubietako plaza.

Aurtengoan ere Zubietako jai batzordeak eta Zubieta Pelota Elkarteak antolatutako goizetik hasi eta gaua harra-patu arte hainbat ekitaldi izango dira irailaren 19an.

Esnadeiarekin hasiko da festa eta txistulari eta trikitilariak arduratuko dira horretaz. Izan ere, goizeko egitaraua bete bete dator aurtengoan. Lehendabizi Endika Abril txapelketako erreboten partiduetatik ikusi ahal izango dira eguraldiak laguntzen badu behintzat. Partiduen ondoren, berriz, tripa hamaiketakoaren bidez asetu eta gero bertsolari gazteek beren saioa eskainiko dute. Hori bai goiz osoan zehar talogileak eta barazki eta ganadu erakusketa izan-

go dira Alamandegi aurreko bidean.

Herri bazkariaren ondoren kirolak nagusituko dira. Izan ere esku pelota partiduetatik izango dira lehendabizi eta garai batean, eta oraindik ere bai noski, horrenbesteko ikusmina sortzen duen **dema** gero. Euskal festari amaiera emateko berriz, ez da erromeriarik faltako, trikitixa doinuak entzun eta dantzatu ahal izango direlako gorputzak uzten duen bitartean.



Euskarari lehentasuna eman nahian

Azken urteetan hartutako Aerabakiari jarraituz, Usurbilgo udalak gaztelania hutsean iristen zaizkion idazkiak onartu ez eta itzuli egiten ditu. EAEko Justizi Auzitegi Nagusiak orde, gaztelerez soilik komunikatuko dela erantzun dio udalari.

Aurtengo otsailean Estatuko abokatuak udalak onartutako 35 orduko lanastea errekurritu zuen. Errekurtso hau jakinarazten zuen agiria erdara hutsean iritsi zen, eta udalean normala den bezala idatzia erdaraz zegoenez itzuli egin zen agiria euskaraz jasotzeko eskubidea

aldarrikatuz. Abuztuan EAEko Auzitegi Nagusiak justiziaren eta udalen arteko komunikazioa gaztelania hutsean egiten jarraituko zuela, eta gaztelaniaren ezagutzarik ez izanez gero udalaren ardura izango litzatekeela jakinarazi zion udalari.


Joxe Antonio Altuna alkateak lotsagarritzat jo zuen erantzuna pasa den irailaren 13an UEMAko kideekin eta Aizarnazabalgo alkatearekin eman zuen prentsaurrekoan. "Norbait deklaratzera edo epaitzera deitzen dutenean bi hizkuntzetan egiten ditu

jakinarazpenak. Horrez gain, erizpide aldatuta eman da Justizia Auzitegi Nagusian. 1990eko abenduan eta 1993ko azaroan emandako epaietan administrazio eta eta udalari euskaldunen arteko komunikazioek elebidunak izan behar dutela esaten da".

Udalari Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) orain arte bezala, herritarren eskubideak garantizatzeke sektore eta alor guztietan euskarari lehentasuna ematen jarraituko duela berretsi zuen prentsaurrekoan aurkeztu zuten bandoan



Komikiak



Euskaldunon Egunkariatik hartutako Montxoren komikia

Lehiaketa



Zein dira argazkiko hauek?

Hauetako seiren izenak eskatzen ditugu

Asmatzaileen artean Antxeta tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu.

72.alean argazkian ateratzen zen baserria zein zen galdetzen genuen. Zenbaitentzat ez da galdera zaila izan eta tartean oporrak tartekatu badira ere, batzuei ez zaizue ahaztu erantzuna ematea. Murgil-enea baserria zen bai, argazkiko baserri hura. Asmatzaileen artean zozketa egin ondoren **M^a Jesus Etxeberriak** izango du Patri tabernan afaltzeko aukera.

TXIMINIA ALTZARIAK

Osinalde industrialdea

(Aizpurua autobusen aldamenean)

Tel.: 943 37 09 66

BISITA EZAZU

ALTZARI ERAKUSKETA HANDI BAT
USURBILEN BERTAN.

PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.

ESKAINZA BEREZIAK BETI!!

Sagardogileen arteko V. lehiaketa

Aitzaga Elkarreak aurten ere herriko sagardogile ez ofizialen arteko V. Sagardo Lehiaketa antolatu du irailaren 18an. Lehiaketa, beti bezala, afari bat eginez egingo da. Janez sagardoak dastatu, eta afarian partaide diren guztiek beren puntuazioa ematen dute.

Hauk dira parte hartuko duten sagardogileak:

- Aialdenea
- Arratzain
- Berritza barrena
- Gorosti
- Olano

Afaria gehienez 50 lagunentzat prestatuko da; beraz, kopuru mugatua da, eta txartelak eskuratzen bizkor ibili beharra dago. Lehiaketa hau



irailaren 18an, larunbata, gaueko 20.30etan Aitzaga Elkarrean egingo da. Afarira joan nahi duzenok, beti bezala, Aitzaga tabernan izango dituzue afaritarako txartelak salgai. Lehiaketaren sistema edo arauen orria ere tabernan aurkituko duzue.

Irailaren 18ko afariaren menua ondorengo hauex izango da:

- makailoa saltsan
- kostila errea
- gazta, menbrilloa, intxaurreak
- kafea, pattarra, fariasa

Pasa den urtean Egioleta baserriko Txomin Alkortak eskuratu zuen txapela.

Aurten Egioletako sagardoak ez da lehiaketan izango eta lartzazabalgoa ere ez.

Errepideetan euskal presoekin bat

Pasa den uztailaren 31ean, hogeitamarren bat herritar bildu ziren Lasarte eta Andoain bitarteko autobian Senideakek deituriko protestaldian parte hartzeko. "Euskal presoak Euskal Herrira" lemapean zituzten banderak eskuan harturik, banaka banaka jarri ziren autobian zehar. Protestaldi hau ez zen bakarra izan, abuztu guztian zehar ekintza gehiago burutu baitira presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatuz.



Ramon Uribe Palentziara

Espainiako Barne Ministerioak iragarri duen 105 euskal preso-en espetxe aldaketaren arabera **Ramon Uribe Navarro** usurbildarra Segoviako espetxetik Palentziako Dueñas espetxera eramango dute laister batean. Espetxe mugimendu honi preso hurbilketa deitu badiote ere hurbiltzetik gutxi du guzti honek. Ramon azken urteetan Segoviako espetxean egon da, Euskal Herritik 429 kilometrotara. Dueñasko espexera pasatzen dutenean 318 kilometrotara egongo da, 111 kilometrotara hurbilduko dute beraz.

OPARI
aukera zabala
Urte berri on!

Atxegalde, 10 Tel. 36 65 42

GALARRAGA GARRAIOAK

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

LIZARDI LIBURUGENDA

Eskolarako materiala

Maila guztietako
testu liburuak

K/ Etxebeste, 1 USURBIL
Tel.: 36 11 15 (Gipuzkoa)

Urte zaharreko euskal jaialdia Usurbilen

Aurten inoiz baino lehenago jarri gara urtezharrari begira. 2000. urtearen atarian, urte horri ongi etorria emateko planak egiten hasia da jendea. UEMAK ere ez du atzean gelditu nahi. Abenduaren 31ean euskaldunentzat berariaz prestatutako jaialdia antolatu nahi dute Usurbilen, hizkuntza oinarri izango duten ekitaldiak bilduz. Irailaren 11ean herriko taldeetako ordezkarietara aurkeztu zitzaizkien egitasmoa. Orain, jai erraldoi hau antolatzea guztion esku dago.

Urtezharraren eguna edo gaua, berezia izaten da gehienentzat. Urte zaharrari agur esan eta berriari ongi etorria eman nahian etxeko epelean afaldu, egun osoko parranda egin, kotiloietara joan... izaten da zereginik egun horretan. Aurten, ordea, 2.000. urtea dugu ate joka, eta berezitasun honetaz baliatuta zerbaitek berezia egiteko asmoa du UEMAK.

Ez dute azken aldi honetan hainbeste nabarmentzen ari diren ospakizunen bidea hartu nahi (kotiloi deiturikoak alegia), eta ekitaldi berritzaileago bat dute gogoan, "berritzailea, euskal giroan oraindik horrelakorik egiten ez den heinean, baina aldi berean gure ohiturei dagokien begiruneaz". Horregatik, garai bateko hainbat ohituren arrastoak berreskuratzeko ahalegina egiteko asmoa dute, egungo



Urtezharraren egunean garai bateko azoka baten antzeko zerbaitek egitea da antolatzaileen behin behineko asmoa

joeretara egokituz, baina euskara bera eta euskararen etorkizuna oinarritzat hartuta.

Azken finean, euskaldunentzat prestatutako jaialdia antolatu nahi dute, hizkuntza oinarri izango duten ekitaldiak bilduz, hala nola: antzerkia, bertsolariak, ipuin kontaketa... Euskera eta euskal kulturari dagozkion edukiak izango dira jaialdi honen ardatza.

Jaialdia Usurbilen egiteko asmoa

Egun osokoa izango den jaialdi hau aurrera eramateko leku bat aukeratu behar, eta Usurbil aukeratu dute. Uztailaz geroztik ideia honekin bueltaka dabilta, jaialdia aurrera eramateko ideia desberdinak badituzte, baina guzti hau aurrera eramateko usurbildarren ekarpena garrantzitsua izango denez, guzti honen berri eman zuten pasa den irailaren

11ean egindako bileran.

Herriko talde desberdinetako ordezkarietara egin zen bileran, jaialdi hau aurrera eramaten hasi direnek egitasmoaren nondik norakoak azaldu eta herritarren iritzia jakin nahi izan zuten. Herritarrengandik jasotako oneritziarekin oraingoz behintzat egitasmoa aurrera doa.

Irailaren 28an, asteazkenean, arratsaldeko 20.00etan udaleko areto nagusian egingo den bigarren bileran jaialdi antolatzen hasteko lana bideratzen hasi nahi da, baina horretarako herritarren ekarpenak eta ideiak garrantzitsuak izango dira. Beraz, herritar guztiak gonbidatuta zaudete euskaldunok gure modura 2.000 urteari ongi etorri berezia emateko antolatu nahi den jaialdi antolatze bilerara.

Josu Aranberri

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu
UDAZKEN HONETAN ZUKE MODA BERRIA

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 943 36 11 06

Epaiketaren hasieran aretotik alde

Jose Antonio Altuna herriko alkateak aretotik alde egin zuen 1997an armadarik laguntza ez emateagatik irailaren 9an egin zitzaion epaiketa hasi bezain laister. Bigarren aldiz, itzulpen bidezko epaiketa ez zuen onartu, eta epaiketa euskaraz aurrera eramateko ezintasuna ikusita aretotik alde egiteko nahia agertu zion epaileari.

Esan eta egin. Eserlekutik altxa eta kanporako bidea hartu zuten bai alkateak eta baita alkateari elkartasuna azaltzera aretora joan ziren herritarrek ere. Izan ere, epaiketa eta fiskalak euskaraz ez zekitenez itzulpen zerbitzua jarri zuten, baina alkateak, martxoan bertan behera gelditu zen epaiketaren modura ez zuen onartu.

Aretoa utzi aurretik, ordea, **Joxe Antonio Altunak** udalak armadarekin ez kolaboratzeko hartu zuen erabakiaren inguruan zenbait gauza esan nahi izan zituen.

Alde batetik 1987an udalak hartu zuen erabakia lau urtez behin, legealdi berriarekin batera berritzen joan dela jakinarazi zion. Beste aldetik nahiz eta armadarekin ez kolaboratu, soldaduskari buruzko informazioa eskatzen duten guztientzat,



udalean informazio departamentu bat badagoela gogoratu zuen. Azkenik, kontraesan baten aurrean dagoela azaldu zuen. Udalak demokratikoki hartutako erabakia errespetatu behar zuela, hau da armadarekin ez kolaboratzerena, baina bestetik armadaren legeen arabera kolaboratzera behartuta dagoela.

Bera herriak aukeratutako ordezkaria izanda bi aukeren artean lehenengoa errespetatzen zuela esan zion epaileari.

Alkatea aretotik irten ondoren bera gabe egin zuten epaiketa eta kasua epaiaren zain gelditu da. Fiskalak bi urteko inhabilitazio zigorra eskatu zuen.



Epaiaketa hasi aurretik 30 herritar inguru bildu ziren epaitegiaren aurrean alkateari bere elkartasuna erakutsi asmoz. **"Herriak hartu du erabakia: intsumisioa"** zioen pankartarekin epaitegiko sarreraren aurrean lehendabizi, eta Ertzantzak behartuta bidearen bestaldean egon ziren epaiketa hasi aurretik.

Josu Aranberri

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Orain ere,
zutikako solarium-a
zure eskura izango duzu!

Etxebeste, 3 Telf.: 943 371685



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pzta. (pertsoneko)

ZURE
PUBLIZITATEA
HEMEN

IRAILAK 18 larunbata

- Aitzaga Elkarteak **herriko sagardogile ez ofizialen arteko V. Sagardo Lehiaketa** antolatatu du. Parte hartuko duten sagardogileak:

- Aialdenea
- Arratzain
- Berritza barrena
- Gorosti
- Olano

Afaria gehienez 50 pertsonentzat izango da Aitzaga Elkartean gaueko 20.30etan hasita. Afaritarako txartelak Aitzaga tabernan salgai.

IRAILAK 19 igandea

- **Zubietako euskal festa**
Zubietako plazan Zubietako jai batzordeak eta Zubietako Pelota Elkarteak antolatuta.

Goizeko 10.00etan hasita **diana** txistulari eta trikitilariekin. Endika Abril txapelketako **erre-bote partidua**.

Talogilea plazan.

Barazki eta ganadu erakusketak.

Ondoren **bertsolari gazteen saioa** eta ondoren herri bazkaria.

Arratsaldean **eskuzko pelota partidua, dema eta erromeria**.

IRAILAK 20 astelehena

- **Euskal Herria Askatu! konzentrazioa** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.
- Udarregi zaharrean arratsaldeko 20.30etan **Pepe Rey** kazetariak **ardi beltza proiektua** aurkeztuko du.

IRAILAK 24 ostirala

- **Senideaken manifestazioa** arratsaldeko 20.00etan. Frontoitik irteera.

IRAILAK 27 astelehena

- **Euskal Herria Askatu! konzentrazioa** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

IRAILAK 28 asteartea

- Arratsaldeko 20.00etan **urtezharr eguneko euskal jaialdia** antolatzeko bilera udaleko areto nagusian.

OHARRAK

- ✓ **Ford Escort XR3 autoa daukat salgai.** SS-AB matrikula, 11 urte, 107.000 kilometro, ITVa pasata, egoera onean eta gurpil berriekin. Deitu arratsaldetan 943-361261 telefonora.

- ✓ **Gidari bat behar da.** Baldintzak jakin nahi izanez gero deitu 649 422327 edo 629 464250 telefonora.

- ✓ **Aitzaga tabernan lan egiteko persona bat behar da.** Interesatzen zaionak deitu 943- 360217 telefonora.

- ✓ **Andatzpe elkartean bazkide hutsune bat dago.** Baldintzak jakin nahi dituenak deitu 943-366760 telefonora.

- ✓ **Etxe bat alokatzen da Murtxante herrian (Nafarroa)** Tuteratik 3 kilometrotara. Uztaila eta iraila. Telefonoa: 943-363494

- ✓ **Emakume bat behar da goizez** haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu gaez telefono honetara: 943 36 68 45

Gimnasia eta Aerobikeko ikastaroak hastera doaz. Irailaren 25etik aurrea izena emateko aukera. Ikastaroak urrian hasiko dira.

Bestalde, gimnasia egin nahi duten 3. adinekoek, bilera izango dute urriaren 5ean Oiarde kiroldegian goizeko 10.00etan

HIKA ANTZERKI TALDEAREN EMANALDIA

Hika antzerki taldeak **"Arrautza delikatuak"** lana aurkeztuko du Udarregi zaharrean. Agurtzane Intxaurreaga da lanaren egilea eta Mikel Laskurain eta Teresa Andonegi antzezleak

Urriaren 1ean, ostirala Gaueko 22.30etan Udarregi zaharrean

Aterpe eskulangintza taldeak bere tailerra urrian irekiko du Etxealdian. Bertan tailaketa, marrazkia eta pintura, zaharberritzeak eta eskulanak landu ahal izango dira. Izena eman nahi duenak 943-370744 telefonora deitu beharko du

BAZKIDIE TXARTELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

447

bazkide ditu Noauak!

Zu ere egin zaitez

bazkide


Idatzi ezazu Noaua!ren postaletan



KALEZAR



AGINAGA



SAGARDOA ALKATE



ZUBIETA




URDAIAGA



TXOKOALDE



KALEBERRI



URDAIAGA

**Postalak salgai 50 pezetatan
honako leku hauetan**

Barazar ostatua
Ibarrola Txiki nekazalturismoa
Zabalea nekazalturismoa
Alamandegi jatetxea
Saltxipi jatetxea
Zumeta jatetxea

Aginaga sagardotegia
Saizar sagardotegia
Agirrezabal estankoa
Laurok liburudenda
Lizardi liburudenda
Noaua! Kultur Elkartea